

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkaritza

“Asociación empresarial de instaladores y mantenedores de fontanería, gas, calefacción y afines de Álava (AFOGASCA)” elkartearen estatutuak aldatzea

Ebazpena 2018ko ekainaren 28koa, Arabako Lurralde ordezkariarena, “asociación empresarial de instaladores y mantenedores de fontanería, gas, calefacción y afines de Álava (AFOGASCA)” elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa eta estatutuok gordailutzea agindu eta horren berri emateko dena.

Sindikatu eta Enpresa Erakundearen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espediente hasi da “asociación empresarial de instaladores y mantenedores de fontanería, gas, calefacción y afines de Álava (AFOGASCA)” elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa gordailutzea dela-eta, zeina lehendakariak aurkeztu baitu. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

Aurrekariak

Lehenengoa.– 2018ko ekainaren 26an, aipatu elkartearen estatutu-aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutzea eskatzeko dokumentazioa aurkeztu da.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator sindikatuen eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin, eta dokumentazio horretan honako dokumentu hauek daude jasota: gordailutze-eskabidea egiteko instantzia, batzarraren ziurtagiria –non aldaketaren erabakia jasota baitago– eta aldatutako estatutuak.

Hirugarrena.– Araba da elkartearen jarduketa-eremua, eta haren eremu funtzionala estatutuetako 1. artikuluan jasota dago.

Egitate horiei zuzenbideko honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa.– Sindikatuen eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi ematen dio Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15.1 j) artikulua.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikagarri den funtsezko araudia apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta Sindikatuen eta enpresa-erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan jasota dago.

Hirugarrena.– Gordailutzeko dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da zuzenbidearen arabera dela, eta, beraz, bidezkoa da aipatu enpresa-elkartearen estatutuak aldatzeko aktari buruzko dokumentazioa eta aldatutako estatutuak onartzea gordailua egiteko, eta argitara ematea ekintza hori.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau,

Ebazten dut

Lehenengoa.– “Asociación empresarial de instaladores y mantenedores de fontanería, gas, calefacción y afines de Álava (AFOGASCA)” elkartearen estatutuak aldatzeko akta eta aldatutako estatutuak gordailutzea agintzea.

Bigarrena.– Gordailutze hori ALHAON argitaratzeko agintzea, sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Interesdunek aztertu ahalko dute gordailututako dokumentua, eta horren kopia eskatu, baita inpugnatu ere Vitoria- Gasteizko Lan epaitegien aurrean, urriaren 10eko 36/2011 Legearen 2. L artikuluan ezarritakoaren arabera (2011ko urriaren 11ko BOE).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 28a

Arabako lurralde ordezkaria
ÁLVARO IRADIER ROSA